




# kazkezur gazte kazeta

2008ko abendua / 0. zenbakia / debalde

sentitu,  
pentsatu  
eta ekin!

konpromiso  
hitzarinenā?



**agurra**



## Nik banekien

Hori da sekretua gordetzen jakitea. Ondo oriotarrak izan ginene horretan ere. “Hau konfiantzan: irailaren azken ostiralean sartuko gaituk; gero, jabearekin eta zinegotziekin hitz egingo diagu”. Zein da begiz joduzuen lokala? Zein da jabea? Zer dago, herriaren erdi-aldean? Handia alda? WiFia harrapatzen alda bertatik? “Diskreazioa behar diagu; gazte festean argituko duk dena”.

Nik Kontxako lehen igandean jakin nuen. Nola esan duk? Kolpean,

erregeak gurasoak direla jakitean izaten den sentsazioa berreskuratu nuen. Neroni izan nintzen jakiten ia azkena. Ordurako plenotik pasea zegoen gaia, ararteko bera ere lokala ikusten izan omen zen herrian eta furgonetan denak kabitzen ez eta traste zaharrez josia zegoen kosta taileraren atzeko aldea.

Bitartean, marmarra kanean. Iritzien errota martxan, batzuk ilusioz, denak purrustan eta geldirik. “Bettiko gaiak landuko dira: feminismoa, ekologia,

etxebizitza arazoa... gaztetxeen amaituko ote dugu mundua konponzen? Koadrila bakarraren bilgune izaten amaituko du. Zikina izango da, kaleko kartelak txukun egiten ere ez dute eta ikasi. Beti antzeko musika; pankarta politikoak ikusiko ditugu. Jaietan tabernak itxi eta nora joan badugu behin-tzat! Halere, aldeko zerbaite entzun dugunean. Eman aukera bat herrian lanean ari direnei.

Zer da lehenagokoa, beharrezkoagoa, proiektua edo eraikina? Fundamentuzko gazte asanblada edo eraikina? Hasiera-hasieratik, gauza bakarra da gustatzen ez zaidana: OKK, Orio Kaka. Izen berria behar dugu.

**Torrotxo**

## lehiaketa

Gaztetxearentzat  
izen bat eta/edo  
logo bat sortu  
eta bidali ezazu  
[kazkezur@hotmail.com](mailto:kazkezur@hotmail.com)  
helbidera edo  
eraman asanbladara  
abenduaren 31  
baino lehen.  
OKKko kamiseta  
bat irabaz  
dezakezu.

## hileko esaldia:

**bi kontzeptu infinitu**

**bakarrik ezagutzen ditut:**

**unibertsoa eta giza inozokeria.**

-albert einstein-



**Zein ondo pasa genuen gazte festetan. Irailaren azken asteburuarekin batera, hiru eguneko jaia ospatu genuen gaztetxearen beharra aldarrikatzeko. Ez, ez genuen gaztetxerik okupatu, baina herria geure egin genuen. Unerik onenak ekarriko ditugu gogora kronika labur honetan.**

Okupazio egnuna klabe izan zen gazteon etorkizunerako, gaztetxea sortzeko negoziaketetan hasi baikinen Udal ordezkariekin, eta oraindik ere horretan dihardugu. Txupinazoa bota ondoren, ederra izan zen gaztetxe aurrean montatu genuena. Harrietek mitin hunkigarria egin zuen; kaskagorriak begira zituela, gainera.

Inoiz egin dugun herri bazkari jendet-suena egin genuen larunbatean. Ez ziren gazte asko bertan falta zirenak. 200 pertsonatik gora, nahi adina marmitako jan genuen, eta, postrerako, Gaztelumendiren eta Gurrutxagaren bertsoak. Aiarrek ere montatu zuten zirkoa.

Herri kirolentzat tarteak ere izan genuen igandean. Gazte txarangarekin goiko kalea zeharkatu ondoren, hamaike-


takoarekin batera, kirol saio lehiatua izan genuen.

Hala ere, gazte festetako une ahaztezinenetako bat arratsaldeko balsa karrera izan zen. Koadrilen eguna izanik, balsa mordoa eraiki zuten koadrikek lasterketarako, baina batzuk ez zuten pate hartzeko zorterik izan. Dirudienez, ez gara oso brikomaniakoak, eta espero genuena baino jende gehiagok ibili behar izan zuen igerian.

Kontzertu bikainak ere izan genituen: herriko taldeak (Can't explain, Kenon, Orio Konbakt Rock, Mikel Aranzabal eta Dj Illarras), Darling Shoes, Aurka eta Mahaster River. Momentuan izan genituen arazoengatik Triki Ta Kek ezin izan zuen bere emanaldia eskaini; lastima, baina gaztetxean izango ditugu.

**Asko hitz egin da gaztetxeaz azken aldian, baina orain arte ezin izan dugu informazio garbirik eman. Jarraian duzuen testu hau, azaroaren 28an Udalari aurkeztutako hitzarmena da. Abenduaren 1ean aztertu zen OKK eta Udal ordezkarien artean. EAJk eta PSE-EEk leku aukerak aztertuz, lehen-tasun hurrenkeria honetan:**

**Gainontzeakoak prest agertu dira.**



**konpromituz**

Hitzarmen honen bidez, Orioko Udalak eta OKK Gazte Asanbladak elkarren arteko konpromisoa hartzen dute herrian gaztetxea sortu dadin, Orioko hirigunean bertan (poligono industrialtan, ez), eta ondorengo leku aukerak aztertuz, lehen-tasun hurrenkeria honetan:

1. Etxeluzia eraikina: Eraikin hau da OKK Gazte Asanbladak gaztetxe modura aukeratu zuena. Etxejabearren, OKK Gazte Asanbladaren eta Udaleko ordezkarien artean (EAJ izan ezik beste guztiak) hitzezko aurreadostasun bat dago eta betetzen saiatu behar da. Eraikinean egin beharreko lanen kostua jaisteko, OKK Gazte Asanbladak egin ditzake aurrekontuan agertzen diren lan asko. Beraz, aukera hau jorratzen jarraitu behar da.

2. Kosta Tailerra: Bai Udalak eta baita OKK Gazte Asanbladak ere sarritan aipatu izan dute eraikin hori egoki ikusten dutela gaztetxea bertan sortzeko. Aukera hau bi aldeek ontzat ikusten badute, une honetan Kosta Tainerrean dauden talde eta eragileei irtenbide duin bat aurkitu beharko zaie, beren eguneroko ekintzak egiten jarraitzeko arazorik izango ez dutela bermatuz.

3. Beste eraikin bat: 1. eta 2. puntueta-

aipatzen diren aukerak ezin badira aurrera atera, beste eraikin bat bilatzen hasiko lirateke Udal eta Gazte Asanblada, eraikinaren egokitzaparen kostua Etxeluziarena baino merkeagoa izateko asmoz. Beste eraikin honen alokairua 1000 euro baino garestiagoa bada, Udalak ordainduko du aldea. Eraikin hori aukeratzeko unean, herriko gazteen aisiaaldiako behar guztiak asetzeko adinako azala izango duela bermatu beharko da.

Atal hau onartuta, ondorengo konpromiso hauek hartzen dituzte Orioko Udalak eta OKK Gazte Asanbladak:

#### **OKK GAZTE ASANBLADAK:**

OKK Gazte Asanbladak, sarrerako atala onartu eta herriarentzat Udalari diru laguntzarik eskatu gabeko ekintzak egiteko konpromisua hartzeaz gain, hitzarmen hau sinatzen den egunetik hasita (abenduaren 1a) 2 hilabeteren barruan (otsailaren 1a baino lehenago) behin behineko gaztetxea sortzeko konpromisoa hartzen du, ondorengo baldintzak betez:

- OKK Gazte Asanbladak beste eragileei informatu eta Gaztetxe Asan-



blada sortzeko konpromisoa hartzen du, Gaztetxe Asanblada horrek ondorengo baldintzak bete ditzan gaztetxearen funtzionamenduaren arduradun modura.

- Gaztetxea herritar eta kanpotar guztiei irekia izatea bermatuko da; sexu, arraza, nazionalitate, hizkuntza... bereizketarik gabe.

- Alokairu kosturik izango balitz, lehen 12 hilabeteetan, Gaztetxe Asanbladak, gehienez, gainerako kostuaren herena ordainduko du (BEZa kenduta).

- 13. hilabetetik kontratuaren amaiera arte, Gaztetxe Asanbladak, gehienez, gainerako kostuaren erdia ordainduko du (BEZa kenduta).

- Etxeluzia ez den beste eraikin batean egingo balitz gaztetxea, eta alokairuaren kostua (BEZ barne) 1.000 euro baino garestiagoa izango balitz, Gaztetxe Asanbladak ez du bere gain hartuko diru kostuaren aldea.

- Gaztetxe Asanbladak bulego teknikoak eska ditzakeen ezinbesteko segurtasun baldintzak onartuko ditu, gutxieneko segurtasun eta higiene baldintzak bete daitezen gaztetxean.

- Gaztetxe Asanbladak erabateko burujabetzaz autogestioa jorratzeko konpromisoa hartzen du Udalari bertako martxa jarraitzeko eskubide osoa emanez, begirale baten bitartez; baina inola ere aukerarik izan gabe bertan hartzen diren erabaki edo ekintzetan eskua sartzeko. Udalak gaztetxean ekintzaren bat antolatu nahi izanez gero, Gaztetxe Asanbladari eskatu beharko dio baimena.

- Kontratuaren iraupena agintealdia amaitu artekoa izango da, gaztetxea beharrezko dela frogatzeko. Agintealdia amaitzean, beste 4 urtez berrituko litzateke kontrataua, Udalak, Gaztetxe Asanbladak eta eraikinaren jabeak (izango balitz) hala nahi izanez gero.

- Aipatutako bigarren kontratuak irauten duen bitartean, Gaztetxe Asanbladaren eta Udalaren artean behin betiko irtenbide bat adostu beharko da behin betiko gaztetxe finko bat sortzeko. Behin betiko gaztetxea sortzean, OKK Gazte Asanbladaren konpromisoa herriarekiko bakkrik izango da, eta ez Udalarekiko konpromiso ekonomikoa.

#### ORIOKO UDALAK:

Orioko Udalak, sarrerako atala onartu eta OKK Gazte Asanbladak egingo dituen ekintzak egiteko erraztasunak emateaz gain, hitzarmen hau sinatzen den egunetik hasita (abenduaren 1a) bi hilabeteko epearen barruan (otsailaren 1a baino lehenago) behin behineko gaztetxea sortzeko konpromisoa hartzen du, ondorengo baldintzak betez:

- Alokairu kosturik izango balitz, lehen 12 hilabeteetan, Udalak, gutxienez, BEZa eta gainerako kostuaren bi heren ordainduko ditu.

- 13. hilabetetik kontratuaren amaiera arte, Udalak, gutxienez, BEZa eta gainerako kostuaren erdia ordainduko du.

• Etxeluzia ez den beste eraikin batean egingo balitz gaztetxea, eta alokairuaren kostua (BEZ barne) 1.000 euro baino garestiagoa izango balitz, Udalak bere gain hartuko du diru kosturen aldea.

• Ur beroaren, argi indarraren eta komunen instalazioa, aseguruaren kontratazioa eta bulego teknikoak eska ditzakeen ezinbesteko segurtasun baldintzak Udalak bere gain hartuko ditu, gutxieneko segurtasun eta higiene baldintzak bete daitezen gaztetxean.

• Udalak gaztetxea herriko gune publiko modura onartuko du.

• Udalak Gaztetxe Asanbladaren erabateko burujabetza onartzea autogestioa egin ahal izateko. Honek esan nahi du Udalak bertako martxa jarraitzeko eskubide osoa izango duela, begirale baten bitarbez; baina inola ere ez duela izango bertan hartzen diren erabaki edo ekintzetan eskua sartzeko aukera. Udalak gaztetxean ekintzaren bat antolatu nahi izanez gero, Gaztetxe Asanbladari eskatu beharko dio baime-na.

• Kontratuaren iraupena agintealdia amaitu artekoa izango da, gaztetxea beharrezkoa dela frogatzeko. Agintealdia amaitzean, beste lau urtez berrituko litzateke kontratua, Udalak, Gaztetxe Asanbladak eta eraikinaren jabeak (izango balitz) hala nahi izanez gero.

• Aipatutako bigarren kontratuak irauten duen bitartean, Gaztetxe Asanbladaren eta Udalaren artean behin betiko irtenbide bat adostu beharko da, behin betiko gaztetxe finko bat sortzeko. Behin betiko gaztetxea sortzean, Udalak OKK Gazte Asanbladaren konpromisoa herriarekiko bakarrik izango dela onartzen du, eta ez Udalarekiko konpromiso ekonomikoa.

## Zer da gaztetxea?

Gaztetxea mugarik gabeko espazioa da, kultura eta ekintza sozialak sustatzeko leku askea, non gazteok autogestioaz, auto-finantzazioaz eta esperientzia propioez, gure izaera definitu eta garatzeko aukera izango dugun. Gazteon aisialdia, kontzertu, antzerki, hitzaldi, ikastaro eta abar luze batez asetzeko lekua. Ditugun arazo eta beharrei erantzuteko aukera emango digun etxea. Denon etxea, herritar eta kanpotar guztiei irekia. Elkarrekiko erre-speta eta elkarlana izango dira bertan praktikan jarriko diren arau nagusiak.

Norbaitek pentsa edo esan dezake, hau utopia soil bat besterik ez dela, baina Euskal Herriko hainbat herrian frogatu dute, erreallitate bihurtzeko, gogoa besterik ez dela behar. Eta horixe da guk gehien dauaguna. Urrutira joan gabe, Zarautz, Usurbil, Getaria, Zumaia, Zestoa, Deba, Mutriku, Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Ibarra, Urretxu, Ordizia, Beasain eta beste herri askok sortu dute dagoeneko gaztetxea, eta Oriok ezin du atzean gelditu.

OKK Gazte Asanblada



Adi gazteak, sanikolasak  
badatoz. Iaz bezala, festa  
herrikoien aldeko apustua  
egingo dugu, eta horretarako, denon parte hartzea beharrezkoa da.  
Taberna zulotik ateratzeko egitarau ederra antolatu dugu gazteon-  
tzat. Anima zaitezte!

#### PIRATEN TANBORRADA


Sanikolas bezperatik hasiko gara giroa  
berotzen. Urte osoan egin dugun lan  
gogorrari azken puntuia jartzeko, herriko  
gazte ugarik, txupinazoan, danborrak  
astinduko ditugu. Nola ez, gure betiko  
umore kutsuaz blai egingo dugu herria,  
pirataz jantzi eta tanborradako nahiz  
inauterietako abesti dantzagarriak joz.  
Parte hartu ezin dutenak ere datoza-  
la pirataz jantzita. Zergatik ez?

#### GAUPASA EGUNA (abenduak 7)

Normalean baino beranduago hasiko  
dugu eguna, batzuentzat oraindik larun-  
bata izango den arren. 09:30ean irtengo  
da gazte txaranga plazatik. Herria esnatu  
eta egunari gogoz heltzeko, lehen poteoa  
egingo dugu. Behin begiak irekita,

hamaiketakoa egingo dugu, herriko  
zaharren kontra tokan eta igel jokoan jar-  
dun bitartean. Zahar eta gazteei egin  
beharko *anti-doppinga*. Ondoren,  
12:30ean, koadrilen arteko paella lehi-  
aketa. Sukaldean ari diren bitartean,  
Joseba Urbietak, betiko euskal kantuak  
abestuko ditu, bere gitarraren laguntzaz.  
Jateko ordua iritsita, 14:00etan hasiko  
gara paellak jaten, jangarri badaude  
behintzat, eta segidan karta jokoan  
arituko gara (puntuan, txintxonen,  
kakauxainen...). Sari banaketa ere orduna  
eingo dugu. 18:00etan, kale antzerki-  
az gozatzeko beta izango da Alproja  
taldearekin, eta gazte txarangarekin  
arratsaldeko poteoari ekingo diogu  
ondoren. Gaua ongi hasteko, Can't  
explain, Sexyt Sexer eta Esne Beltza.

## abenduko agenda

|   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|
|      | (3)<br>Euskararen eguna:<br>Kazkezur gazte<br>kazetaren<br>0. zenbakia kalean       |    | (5)<br>Sanikolas<br>bezpera.<br>Jantzi<br>pirataz                                   | (6)<br>Sanikolas<br>eguna   | (7)<br>Gaupasa<br>eguna.<br>09:30-...   |
| (8)<br>Euskal<br>Jaia   |    |    |   | (13)<br>The International<br>Noise Conspiracy.<br>21:30. Bilboko kafe<br>antzokian. 18-22 € |   |
| (2, 4, 9, 11, 16, 18, 23, 30)<br>OKKko<br>asanbladak<br>19:00etan<br>Kosta Tailerrean |   | (13)<br>Putzuzuloko<br>2. artista topaketa<br>17:00etan                             |  | (21)<br>Santo<br>Tomas  |   |
|    | (24)<br>Gabon gaua.<br>Baserritarrez jantzi<br>eta kantu eskean<br>irtengo gara     |  | (25)<br>Eguberria   | (28)<br>Inuxente<br>eguna   |  |
| (31)<br>Urtezahar<br>gaua   |  |   |   |   | <b>Urte berri on!</b>   |



Birziklagarria naiz.

Boña nazazu  
edukiontzi urdinera.

kazkezur  
gazte kazeta

Kultur Etxea  
20810 Orio

kazkezur@hotmail.com

Editorea:

OKK

Mila esker KARKARArri  
edizio materiala uzteagatik.